

Xuxen

genero zuzentzaile duna

Microsoft Office 2007, 2010, 2013, 2016, 2019 eta 365

Edukiak

1.	Eskakizunak.....	4
1.1	Sistema eragilea.....	4
1.2	Zer software behar den.....	4
2.	Instalazioa eta desinstalazioa.....	5
2.1.	Instalazioa.....	5
2.2.	Desinstalazioa.....	9
3.	Zuzentzaile ortografikoa.....	10
3.1.	Zer da eta nola erabiltzen da?.....	10
3.2.	Zer zuzentzen du?.....	11
3.3.	Zer ez du zuzentzen?.....	11
3.4.	Erabiltzailearen hiztegia	12
4.	Zuzentzaile gramatikala	15
4.1.	Zer da eta nola erabiltzen da?.....	15
4.2.	Arauak nola aktibatu eta desaktibatu.....	16
4.3.	Zer zuzentzen du?.....	17
4.4.	Zer ez du zuzentzen?.....	21
5.	Genero-zuzentzailea	22
5.1.	Zer da eta nola erabiltzen da?.....	22
5.2.	Zer gomendatzen du?.....	22
5.3.	Gomendioak nola aktibatu eta desaktibatu.....	23
6.	Ohiko galderak.....	24
6.1.	Wordek automatikoki aldatzen dizkit hitz batzuk.....	24
6.2.	Xuxen instalatu dut, baina ez du gorritz azpimarratzen.....	24
6.3.	Nola jakin Xuxenen azken bertsioa erabiltzen ari naizen.....	24

Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa erabiltzeko behar den informazioa biltzen du eskuliburu honek, zeinak instalazioa eta desinstalazioa egiteko pausoak xehe azaltzeaz gain, Xuxen 5.2 zuzentzailea Microsoft Officen erabiltzeko laguntza ematen dion erabiltzaileari.

Microsoft Officerako garatutako Xuxenen azken bertsio honek, errore ortografikoak eta zenbait gramatika-errore detektatzeaz gain, genero-zuzentzailea ere barne hartzen du. Eskuliburuak errore-mota horiek atal ezberdinetan lantzen ditu: zuzentzaile ortografikoari buruzkoak atal batean, gramatikalarari buruzkoak, beste batean, eta, azkenik, genero-zuzentzaileari dagozkionak.

Dokumentu honetan ematen diren adibideak eta pantaila-argazkiak Microsoft Office bulegotika-paketean datorren Word aplikazioarekin egindakoak dira. Hala ere, zuzentzaile honek Microsoft Officeko beste aplikazioetan ere funtzionatzen du; adibidez, Excel, Power Point eta Outlooken.

Zuzentzailea erabiltzen ari zarela, kontuan izan zurea dela azken erabakia; izan ere, automatikoki azpimarratzen dira hitzak gorriz edo berdez (bertsio batzuetan, urdinez), baina haietan ageri diren proposamenak erabiltzea (edo ez) zure esku dago.

1. Eskakizunak

1.1 Sistema eragilea

Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa instalatzeko, sistema eragile hauetakoren bat eduki behar da instalatuta ordenagailuan: Windows 7, Windows 8 edo Windows 10.

1.2 Zer software behar den

Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa instalatzeko, erabiltzailearen ordenagailuak instalatuta eduki behar du Windows sistema eragilea eta, horrez gain, Microsoft Office 2007, Microsoft Office 2010, Microsoft Office 2013 edo Microsoft Office 2016, Microsoft Office 2019 edo Microsoft 365 bulegotika-paketeetako bat.

Office 2010

Joan “Fitxategia > Laguntza” atalera, eta hor jarriko du 32 edo 64 bitekoa den:






Office 2007

Ez dago Office 2007rako 64 biteko bertsiorik. Beraz, Office 2007 beti da 32 bitekoa.

Behin zein instalatzaile jaitsi dakigunean, nahikoa izango da dagokion estekaren gainean klik egin eta gure ordenagailura jaistea. Ondoren, fitxategiaren gainean klik bikoitza egin, eta Xuxen zuzentzailearen instalazioa martxan hasiko da.

Pantaila hauek erakutsiko ditu instalatzaileak:






Instalazioan zehar, sisteman euskarazko beste zuzentzailearik badagoen begiratzen du instalatzaileak. Aurrez, besteren bat instalatuta dagoela detektatzen badu, desinstalatzeko eskatuko du; bestalde, Xuxen 5.1.x bertsioa detektatzen badu, ordezkatu egingo du.

2.2. Desinstalazioa

Xuxen desinstalatzeko prozedura Windowsen erabiltzen ditugun gainerako beste aplikazioena bezalakoa da: “Hasi” > “Kontrol-panela” > “Programak” > “Desinstalatu edo aldatu programa bat” atalean, “Xuxen 5.2 Euskarazko Zuzentzailea” aukeratu, eta "Desinstalatu" botoiaren gainean klik egin. Han agertzen diren pausoak eman behar dira zuzentzailea ordenagailutik gutziz ezabatzeko.




3. Zuzentzaile ortografikoa


3.1. Zer da eta nola erabiltzen da?

Microsoft Office barruan instalatzen den Xuxen zuzentzaileak ortografia-akatsak detektatzen eta haien ordeztu hitzak proposatzen ditu. Okertzat ematen dituen hitzak gorri azpimarratzen ditu, eta, saguaren eskuineko botoiarekin klik eginda, azpimarratutako hitza aldatzeko proposamenak eskaintzen ditu.

Xuxen zuzentzaile ortografikoa aktibatzeko, dokumentua euskaraz idazten ari garela esan behar diogu, nahitaez, gure aplikazioari. Microsoft Worden euskarazko testu bat sortzen ari bagara, berariaz esan behar diogu testuaren hizkuntza zein den. Horretarako, dokumentua irekita daukagula, testua aukeratu, eta, pantailaren behealdean dagoen barran, euskara aukeratu behar da testuaren hizkuntzatzat.



Idatzi ahala ortografia-akatsak zuzentzea nahi badugu, ezinbestekoa da idazten ari garela zuzenketak markatzeko esatea aplikazioari, irudi honetan agertzen den moduan:



3.2. Zer zuzentzen du?

Xuxenek gorritz azpimarratzen ditu akats ortografikoren bat duten hitzak. Errore-mota ezberdinak detektatzen ditu, eta ematen dituen proposamenak ere horren arabera izaten dira. Demagun esaldi hau daukagula: “Aurtengo diru-laguntza etorri da, gaisoaldi larriaren ondorioz”.

Aurtengo diru-laguntza etorri da, gaisoaldi larriaren ondorioz.

Zuzentzaile ortografikoak, irudian ikusten den moduan, bi hitz azpimarratzen ditu gorritz: alde batetik, “diru-laguntza” azpimarratu du, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko azken eguneraketan arabera ‘dirulaguntza’ delako forma egokia; bestetik, “gaisoaldi” hitza ere azpimarratuta agertzen da, oso ohikoa den ‘s’ eta ‘x’ nahaste edo errore tipografikoa.

3.3. Zer ez du zuzentzen?

Xuxenek ortografia-akatsak zuzentzen ditu, esaldiaren zuzentasun semantikoa kontuan hartu gabe, hau da, zentzurik ez daukan esaldia ere ontzat eman dezake. Beraz, esaldi batean dauden hitz guztiak

zuzenak badira, ez da azpimarra gorririk agertuko. Hona hemen adibide bat: "Etxea etorri joan ziren beldurtu gorria."

Etxea etorri joan ziren beldurtu gorria.

Adibide horrek ez dauka zentzurik, baina akats ortografikorik ez daukan esaldi bat da; horregatik, ez dago ezer gorri azpimarratuta.

3.4. Erabiltzailearen hiztegia


Zer da erabiltzailearen hiztegia?

Microsoft Officek aukera ematen dio erabiltzaileari bere hiztegi propioa sortzeko eta erabiltzeko, bulegotika-paketea instalatuta dagoen zuzentzaile ortografikoak errore moduan markatu duen hitz bat momentu batetik aurrera testu zuzentzat har dezan. Zuzentzaile ortografikoa pertsonalizatzeko modu horri "erabiltzailearen hiztegia" deitzen zaio.

Nola erabiltzen da erabiltzailearen hiztegia?

Funtzionalitate hori Microsoft Officek berak eskaintzen duen arren, moldaketak egin dira Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzen denerako, euskarazko horrelako hiztegi batek behar dituen beharrak asetzeko.

Horregatik, Microsoft Worden daukagun testu batean Xuxenek zuzenketak egin eta gero, guri ohikoa egiten zaigun hitz bat gorri azpimarratuta agertzen bada, hitz hori gure erabiltzailearen hiztegian txertatzeko aukera daukagu. Esan bezala, euskararen beharretara egokitu da funtzionalitate hori; horregatik, "Gehitu hiztegiari" aukeran klik egindakoa, honelako leiho berri bat agertuko da.




Ezaugarria	Balioa	Oharrak
Lema (deklinabideko kasu-atzizkirik gabe)	Elhuyar	Maiuskulaz hasita idatziko dugu, izen berezia baita.
Kategoria	Izen berezia: ez pertsona	Izen berezia da, baina ez da pertsona-izena.
R gogorra du amaieran	Bai	
A itsatsia du amaieran	Ez	
Leku-izena da	Ez	

Datu hauek eskatzen ditu leiho berri horrek:

- Lema (deklinabideko kasu-atzizkirik gabe)
- Katetoria
 - Izen berezia: pertsona
 - Izen berezia: ez-pertsona
 - Izen arrunta
 - Adjektiboa
 - Aditza
 - Sigla
 - Bestelakoa
- Beste ezaugarri batzuk
 - R gogorra du amaieran
 - A itsatsia du amaieran
 - Leku-izena da

Demagun “Eguraldia gristu egin da” idatzi dudala Wordeko dokumentu batean eta zuzentzaile ortografikoak 'gristu' hitza gorriz azpimarratu duela. Erabiltzailearen hiztegian sartzeko, gorriz azpimarratuta dagoen hitzaren gainean klik egin, eskuineko botoiarekin, eta “Gehitu hiztegian” hautatu. Hori egitean agertuko den leiho berrian sartu behar dira datu guztiak:

- **Lema** (deklinabideko kasu-atzizkirik gabe): *gris*, *gristu* aditzaren erroa. Letra xehez idatzi, letra xehez idazten den hitz bat delako, esaldiaren hasieran doanean salbu.
- **Kategoria**: aditza.
- **Beste ezaugarri batzuk**: kasu honetan, ez da beste ezaugarririk jarri behar.



Erabiltzailearen hiztegia

xuxen
ixa eta elhuyar da

Lema (deklinabideko kasu-atzizkirik gabe)
gris

Kategoria
Aditza

Beste ezaugarri batzuk

☐ R gogorra du amaieran
☐ A itsatsia du amaieran
☐ Leku-izena da

Sartu hiztegia

Hitz bat gehitu nahi duzu erabiltzailearen hiztegia?

Erabiltzailearen hiztegia hitz bat sartu nahi denean, hitzari buruzko informazio gehigarria sartu behar da.

Adibidez, **Elhuyarren** hitza azpimarratu du Xuxenek, eta erabiltzailearen hiztegia sartu nahi dugu. Hauek dira bete beharreko datuak.

Ezaugarria	Balioa	Oharrak
Lema (deklinabideko kasu-atzizkirik gabe)	Elhuyar	Maiuskulaz hasita idatziko dugu, izen berezia baita.
Kategoria	Izen berezia: ez pertsona	Izen berezia da, baina ez da pertsona-izena.
R gogorra du amaieran	Bai	
A itsatsia du amaieran	Ez	
Leku-izena da	Ez	

Azpimarratutako hitza **otanarik** balitz, bestalde, datu hauek

Informazio hori guztia sartuta, hitz horretatik sor daitezkeen gainerakoak ere onartuko ditu zuzentzaile ortografikoak. Adibidez, *gristu*, *gristuta*...


Kontuan izan erabiltzailearen hiztegia euskara batuarekin erabiltzeko dela, deklinabide-kasu ezberdinak dituzten hitzak ezagutzeko erabiltzen diren arauak batuan sortuak baitira. Nahi izanez gero, euskalki jakin bateko hitzak sar daitezke, baina espero ez den emaitzarik agertzea gerta daiteke horrelakoetan.

4. Zuzentzaile gramatikala

4.1. Zer da eta nola erabiltzen da?


Ortografia-akatsak detektatu eta horietarako proposamenak egiteaz gain, gramatikalki okerrak diren esaldi-zatiak ere detektatzen ditu Xuxen zuzentzaileak. Berdez (edo urdinez, Microsoft Office bertsioaren arabera) azpimarratzen ditu zati horiek, eta dagokion akatsaren araberrako mezu bat erakusten du, edo aldaketa-proposamena egiten.

Zuzentzailearen funtzionalitate hori aktibatzeko, ortografia-zuzentzailearekin bezala, euskaraz landu behar dugu testua. Zuzentzaile gramatikala aktibatuta egongo da, lehenespenez; aktibo ez dagoen kasuetarako, berriz, Wordeko aukeretan, aktibatuta eduki behar dira “Berrikuspena” azpiatalean, “Egiaztatu gramatika ortografiarekin” eta “Markatu gramatika-akatsak idazten duzun heinean” aukerak.




4.2. Arauak nola aktibatu eta desaktibatu

Gramatika-zuzentzailearen ezaugarrietako bat hau da: testuan erroreak detektatzeko erabiltzen diren arauak aktibatu eta desaktibatzeak aukera ematen du Microsoft Officek. Horiek ikusteko, Wordeko aukeretan, “Berrikuspena” azpiatalean, idazketa-estiloaren ezarpenak bistaratu behar dira.



Leiho berri batean azalduko dira aktibatuta eta desaktibatuta dauden arauak:



4.3. Zer zuzentzen du?

Gramatika-zuzentzailearen arauak multzokatu egin ditugu, eta horietako bakoitzeko adibide batzuk sortu. Horrela, Xuxenek zer gramatika-akats azpimarratzen dituen ikusiko dugu.

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren hobespenak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Betiere umoretsu eta txantxazale agertzen den pertsonaia <u>nafartarra</u> .	Betiere umoretsu eta txantxazale agertzen den pertsonaia <u>nafarra</u> .
Bihar ez ote zaio euskal populu ttipiari dolutuko gaur <u>anglesak</u> hemendik kasaturik?	Bihar ez ote zaio euskal populu ttipiari dolutuko gaur <u>ingelesak</u> hemendik kasaturik?
Hogeita hamar urte pasa dira zure gazte-garaiko mototsa moztu eta <u>narruzko</u> txupa aparkatu zenuenetik.	Hogeita hamar urte pasa dira zure gazte-garaiko mototsa moztu eta <u>larruzko</u> txupa aparkatu zenuenetik.
<u>Gainontzekoek</u> ere horixe bera pentsatzen dute.	<u>Gainerakoek</u> ere horixe bera pentsatzen dute.

Puntuazio-marken aurreko zuriunea

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Zergatik ordu-aldaketa <u>?</u>	Zergatik ordu-aldaketa <u>?</u>
Mota askotako substantzia kutsatzaileak iristen dira gure ibaietara <u>.</u>	Mota askotako substantzia kutsatzaileak iristen dira gure ibaietara <u>.</u>

Lokailuen puntuazioa

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
<u>Bestalde</u> zuk ez duzu berdin pentsatzen.	<u>Bestalde</u> , zuk ez duzu berdin pentsatzen.
Horrela <u>bestalde</u> hobeto doa.	Horrela, <u>bestalde</u> , hobeto doa.

Komen erabilera enumerazioetan

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
<u>Patatak porruak azenarioak</u> eta tomateak erosi ditugu.	<u>Patatak, porruak, azenarioak</u> eta tomateak erosi ditugu.
<u>Patatek porruak azenarioek</u> eta tomateek itxura ederra dute.	<u>Patatek, porruak, azenarioek</u> eta tomateek itxura ederra dute.

“Harik eta... “ moduko egiturak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Zuk ez esan ezer harik eta irakasleak <u>galdetzen du arte</u> .	Zuk ez esan ezer harik eta irakasleak <u>galdetzen duen arte</u> .

“Gosea daukat” modukoak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Jendeak <u>gosea zeukan</u> .	Jendea gosea zen // Jendea goseak zegoen.

**Esaldi bakoitzean gramatika-akats bakarra markatzen du. Hori zuzendu bitartean, ez du besterik azpimarratuko.*

“Ikusiko gara” modukoak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Ikusiko gara oporretan?	Ikusiko dugu elkar oporretan?

Mugagabearen erabilera “Festa handi batetara” moduko esaldietan

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Antzerki batetarako sarrerak ditut.	Antzerki baterako sarrerak ditut.

Deklinabidearen eta erakusleen erabilera “guzti”rekin

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Horiek guztietatik bakarra probatuko nuke.	Horietatik guztietatik bakarra probatuko nuke.
Liburu guzti horiek irakurri ditut.	Liburu horiek guztiak irakurri ditut.

“Ezer ez dut egin” modukoak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Ez dut ezer ez egin.	Ez dut ezer egin.

“Hilabete bat” modukoak

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
<u>Hilabete bat</u> iraun zuen bidaiak.	<u>Hilabete</u> iraun zuen bidaiak.

Datak idazteko modua

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
<u>Donostian</u> 2015eko azaroaren 5ean.	<u>Donostian</u> , 2015eko azaroaren 5ean.
Dantzaldia 2016ko <u>Urtarrilaren</u> 20an izango da.	Dantzaldia 2016ko <u>urtarrilaren</u> 20an izango da.

Mugatuaren erabilera zenbatzaile zehaztugabeetan

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
Non eta nola jaso duten gure berri, <u>zein ezaugarriekin</u> lotzen duten gure unibertsitatea eta zeintzuk diren euren gustuko lan-esparruak ikus-entzunezkoen munduan.	Non eta nola jaso duten gure berri, <u>zein ezaugarriekin</u> lotzen duten gure unibertsitatea eta zeintzuk diren euren gustuko lan-esparruak ikus-entzunezkoen munduan.
<u>Zein parkea</u> berrituko dute?	<u>Zein parke</u> berrituko dute?

Postposizio batzuen erabilera: zehar, bitarte, esker, gabe, gisa, gora, goiti, orde, barne eta bila.

Jatorrizko testua	Proposatzen den zuzenketa
<u>Arkatzak gabe</u> ezin dut idatzi.	<u>Arkatz gabe/arkatzik gabe</u> ezin dut idatzi.
Hobe <u>mendiaren zehar</u> joatea.	Hobe <u>mendian zehar/menditik zehar</u> joatea.

<u>Ane bitartez</u> jakin dut.	<u>Aneren bitartez</u> jakin dut.
<u>Jertsea orde</u> z jaka ekarri du jantzita.	<u>Jertsearen orde</u> z jaka ekarri du jantzita.
<u>Eskaileren gora</u> igo da.	<u>Eskaileretan gora</u> igo da.

4.4. Zer ez du zuzentzen?

Arau-zerrendatik kanpo dauden beste errore-mota batzuk ere badauden arren, zuzentzailearen bertsio honek ez ditu detektatzen; estilo eta gramatikari dagozkien akatsen detekzioa mugatua da.

5. Genero-zuzentzailea

5.1. Zer da eta nola erabiltzen da?

Xuxenen azken bertsio honek genero-zuzentzailea txertatua du. Beraz, zuzentzailea gai izango da genero-berdintasunaren ikuspegitik desegokitzat jotzen diren hitz batzuk markatzeko eta hari buruzko iruzkina egiteko. Zuzentzaile gramatikalak egiten duenaren antzera, generoaren ikuspegitik oso egokitzat hartzen ez diren zenbait hitz eta esapide berdez (edo urdinez Microsoft Office bertsioaren arabera) markatuko ditu erabiltzailea hizkuntzaren erabilera desegokiaz ohartarazteko.

5.2. Zer gomendatzen du?

Genero-zuzentzaileak itzuliko dituen mezuak eta oharrak hainbat multzotan sailkatzen dira:

Zuzentzaileak emakume izenenen ondoan doazen adjektibo gutxiesgarriak detektatzen ditu, hizkuntza-erabilera sexista izan daitekeela adieraziz:

Jatorrizko testua	Iruzkina
Amaia <u>kaskarinak</u> ez zuen inolako gogorik.	Generoaren ikuspegitik, adjektibo hau desegokia izan daiteke.
<u>Mari-purtzil</u> horrek ez daki zertan dabilen.	Generoaren ikuspegitik, adjektibo hau desegokia izan daiteke.

Zenbait hitzekin gizonezkoak bakarrik kontuan hartzen direla ohartarazteko iruzkinak:

Jatorrizko testua	Iruzkina
<u>Jaunak</u> , ongi etorri!	Generoaren ikuspegitik, 'jaun-andreak' erabiltzea gomendatzen da.
<u>Legegizonei</u> esker egin du aurrera herriak.	Generoaren ikuspegitik, 'legelariei' erabiltzea gomendatzen da.

Hitz batzuk testu-motaren arabera, desegokiak izan daitezkeela ohartarazteko iruzkinak:


Jatorrizko testua	Iruzkina
Marikoi deitzen zioten egunero eskolan.	Generoaren ikuspegitik hitz hau desegokia izan daiteke.

Elhuyar hiztegia ‘arrunt’ edo ‘gutxiesgarria’ marka duten hitzen kasuan ohar hau erakutsiko zaio erabiltzaileari:

Jatorrizko testua	Iruzkina
Emagald u haren errua izan zen.	Hitzak ‘arrunt’ marka du Elhuyar hiztegia, ziur zaude erabili nahi duzula?

5.3. Gomendioak nola aktibatu eta desaktibatu

Erabiltzaileak uneren batean zuzentzailea desaktibatu nahiko balu, zuzentzaile gramatikalaren atalera joan eta bertan desaktibatze aukera izango luke. Izan ere, testuinguru berezi batzuetan gerta daiteke lexiko sexista eta baztertzalea erabili nahi izatea eta, beraz, halako gomendioen beharrik ez izatea (esate baterako, nobela bat idaztean pertsonaia jakin batek hala eskatuko balu).



6. Ohiko galderak

6.1. Wordetik automatikoki aldatzen dizkit hitz batzuk.

Batzuetan, Wordetik lehenespenez ekartzen duen euskarazko zuzentzailearekin datuak nahastu eta hitz batzuk automatikoki ordezkatzeko dituzte. Ordezkapen horiek ez ditu Xuxenek egiten, eta, sarri, nahasgarriak izaten dira erabiltzailearentzat. Funtzionalitate hori desaktibatzeak aukera ematen du Wordetik, “Word-en aukerak” > “Berrikuspena” > “Zuzenketa automatikoaren aukerak...” ataletik. “Ordeztu idatzi ahala” aukera desaktibatzea nahikoa da automatikoki egiten diren ordezkapen horiek ez egiteko.

Aukera hori desaktibatzea gomendatzen dugu.

6.2. Xuxen instalatu dut, baina ez du gorritz azpimarratzen

Zuzentzaile ortografikoaren emaitzak ikusteko, hau da, zuzenketak egiten ari den jakiteko, hiru ezaugarri hauei erreparatu behar zaie:

1. Dokumentuaren hizkuntza euskara dela ziurtatu.
2. Idatzi ahala zuzentzeko aukera aktibatua izan.
3. Desaktibatutako gehigarrietan egotea ere posible da, erroreren bat gertatu delako: “Word-en aukerak” > “Osagarriak” > “Kudeatu: desaktibatutako elementuak” > “Joan...”. Leiho berri bat agertuko da, eta, “Aktibatu” botoia erabiliz, zuzentzailea berriz aktibatuko da.

6.3. Nola jakin Xuxenen azken bertsioa erabiltzen ari naizen

Behin instalazioa burututa, eta, adibidez, Wordeko dokumentu bat irekita daukagula, dokumentuaren hizkuntza euskara den begiratu behar da.

Ondoren, bi modu proposatzen ditugu Xuxenen azken bertsioa erabiltzen ari garen jakiteko:

- Bestalde, bertsio honek *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko azken eguneraketak kontuan hartzen ditu eta adibide hauek erabil ditzakezu azken bertsioarekin ari zaren jakiteko:
 - “diru-laguntza” hitza azpimarratuko du, eta “dirulaguntza” proposatuko.
 - “coronavirus” hitza azpimarratuko du, eta “koronabirus” proposatuko.
- Akats ortografikoa duen hitz bat idatzi eta gorritz azpimarratuta agertzen bada, “Gehitu hiztegiari” aukerari klik egin. Hitzak erabiltzailearen hiztegiari sartzeko erabiltzen den leiho berri bat agertuko da, Xuxenen logotipoa eta guzti. Xuxen erabiltzen ari zara, beraz.